

**Txileko meatzariak aske
Zulo baltzetik askatasunaren argira**

Basamortu lakarrean
bizi iturri garratza
ezeuki ta behartsuen
ogibide urri latza
lurraren errai sakonenetik
atara guraz ikatza
ilunpean ta izerdi patsez
irabaziz esperantza.

Bat-batean gertatu da
istripu bildugarria
urtenbide izpi gabe
meategia itxia
hogeita hamahiru gizon barruan
trantze estu ta larria
mundu osoak Txile aldera
itzul bihotz ta begia.

Hain luzaro eta arduraz
bizirik ondo ondoan
konponezin ta borrokak
izango ziran zuloan
garraztasunik ostera inork
ez dau agertu kanpoan
itxialdian gizabidea
babestu dabe osoan.

Teknikaren arrakastaz
danak dakarrez argira
erreskate harrigarritz
zorion-pozez lurbira
buruzagiak txaloz ta agurrez
harropoztu egin dira
hobe leukee behar-baldintzen
eratzaille on balira!

Meategia itxi da
ez da barriz zabalduko
langileek soldatarik
ez dabe eskuratuko
lanpostu gabe soldata gabe
zeri deutse oratuko
duintasunezko garapenera
zelan arraio helduko?

Meatzari aurpegi baltz
agian eskolan labur
birika apika kedar
bihotza osterera samur
lotsatu gabe belaunikatuz
Jainkoari lehen agur
beste guztiok izten gaitula
hunkituta zur eta lur.

Lontzo Zugazaga